

Urtea: 2020-2021

Irakaslea: Aitzpea Leizaola

## *Amama* pelikularen inguruko hausnarketa

Caro Barojak azaltzen dituen terminoen bidez aztertuko bagenu *Amaman* agertzen den familia, zera esan genezake: Baserriko nagusia, jabea, triste dago, oinordeko izan behar zuen seme zaharrenak ez duelako baserriarekin jarraitu nahi. Nekazal gizartean, bikote nagusi bat, bikote gazte bat eta haien umeak bizi ohi ziren baserrietan, eta baita “mutilzar” edo “neskazarrak”, morroi pare bat (edo gehiago, baserria ona bazen). Baserriak, unitate ekonomiko bezala funtzionatu zezan, zatiezina izan behar zuen, horra hor oinordekotza arautzen zuten foru ezberdinak (toki guztietan ez baitzen seme zaharrena oinordekoa zena).

Euskal Herrietako baserrietara ordea, jada ez dira etortzen Ameriketako osabak, ez fortuna egindakoak ez fortuna egin gabekoak. Morroirik ere ez da egoten eta azken hamarkadetan izugarritzkoa izan da landa eremuetatik hirira joandako gazteen, eta ez hain gazteen, kopurua (baserriarrak kaleko bilakatzen ari dira) (Jiménez, 2019). Baserriak husten ari dira, ez badira agroturismo bilakatzen (hau da pelikulan egiten den baserria “salbatzeko” proposamena). Baserriarekin jarraitu nahi duten gazteek zailtasun eta oztopo handiak dituzte hala egiteko (Alberdi Collantes, 2009, 400 or.). Pelikulan, Xabik, bigarren semeak, simbolizatuko lituzke baserriarekin jarraitzeko gogoia baina aukera eza duten gazteak.

Baserriak ez dira sekula alokairuzko pisu merkeak bezalakoak izan, baserrien jabeek belaunaldiz belaunaldi alkilatzen zieten familia berari baserria, industrializazioarekin batera diruaren zirkulazioa bizitzaren esparru guztietara zabaldu zen arte behintzat. Orduan baserriar askok maizter izateari utzi zioten, eta beraien baserri propioa erosi ahal izan zuten. Baina hori ahalbidetu zuen eredu ekonomikoak, aldi berean, baserriaren funtzio ekonomiko tradizionala suntsitu du, haren funtzio soziala ezinezko eginez.

Pelikulan, aitak ezin du onartu berak ezagutzen zuen baserria, eta harekin batera, berak ezagutzen zuen bizimodua, agortuak daudela, eta familiari botatzen dio horren errua. Momentu batean alabak galdetzen dio aitari zergatik ari den halako soro puska handia landatzen, ea zergatik ez baratza txikiago bat, eta hark erantzuten dio ereiten duela haziek iraganekoen jakituria daukatelako, eta horregatik, ezin dala baserria galtzen utzi (“baserria hiltzen uzten badinau, denok goaz pikutara”). Baserriaren funtzio ekonomiko tradizionalaren suntsiketak, izan ere, funtzio ekonomiko horri lotutako egitura sozial eta forma kulturalen bukaera dakar (“mundu zahar hori”).

Pelikulan amama da baserrien egoeraren simboloa: Bizirik baino hildakoa bezala, mutu dago, ez dauka ezer egiteko gaitasunik, ezagutzen ditugun bere hitz bakarrak (Amaia ilobaren bidez), zera dira, munduaren bukaera dena errepidez eta denez betetzen denean etorriko dela. Amonaren heriotza baserrien bukaera da, eta heriotz honek dimentsio sozial eta kultural bat dauka, Lizardiren “Euskal Pizkundera” olerkian ere duen bezala.

Beste paralelismo bat egin liteke pelikularen amaieraren eta baserrien gaur egungo egoeraren artean: Baserriak, bizirauten badu, hain handi batean erakusketa baten zati bezala da, turismorako xarma duen paisaiaren zati, denbora batez konstumitzeko zerbaite gisa.

Honek atsekabea sortzen du, Euskal Herrian errealitatea era diakronikoan ulertzeko joera daukagu eta, eta baserrien desagaperpenak iraganean izan ziren egitura sozial eta forma kulturalen desagaperpena ekarriko duela ikusten baitugu. Amaiak pelikulan dio “neolitikotik datorren katea apurtu da”. Nik erantzungo nioke baserria neolitikoa baino nahiko beranduago sortu zela, baino kate bat apurtu dela, hori begi bistakoa da.

#### Bibliografia:

Alberdi Collantes, Juan Cruz. (2009). Medio rural y abandono de la agricultura. Desarrollo de un ejemplo: El Caserío Vasco. EHU.

Altuna, Asier (zuzendaria).(2015). Amama. España:Txintxua Films.

Caro Baroja, Julio. (1972). Los Vascos. Ediciones Akal.

S.Jiménez, Aiende. (2019). Casi la mitad de los municipios de Gipuzkoa perdieron población el año pasado. El Diario Vasco.